

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

280n. zenbakia
urterilla 2003



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



LARGAZKIA: FORU -ALDUNDIA. EUSKAL MUSEOA

- Kristo-aurretik I gizaldiko illarria
- Berriaga'n aurkitua (Kastroan)
- Bizkaia'n olako asko: Fruniz'en bat.

EUSKALERRIAN EUSKERAZ



2002-2003 IKASTURTEA

OGEI TA AMABOSGARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 125 €

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKINA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 7AN

35² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 125 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 7 DE OCTUBRE

GOTZAINEN AGIRIA

Eleizan arduradunak daukaguz eta oneik Kristo'ren izenean zaintzen dabe curen erria edo artaldea. Guk onartzen doguz Aita Santua eta Eleizbarrutiko Gotzaiña. Bitartean dagozanak, Goi-Gotzaiñak eta Gotzain-Batzordea ez dira gure artzaiñak eta curen agiriak ez gaitue bear-tzen.

Gure erri-agintariak bein baten Erroma'ra joan ziran aolkua eskatzen eta ez ebezan onartu erkal edo errepubli-keagaz batera jokatzeko ebelako eta au izan zan curen erantzuna: "Jokabide ori kontzientziaren aurka ez dago, baiña "galdu egingo dozue".

Egin zan guda eta galdu be egin gendun. Ondoren lez, 500 abade erbesteratu ebezan eleizearen baimenarekin, Gotzaiña bera be erbesteratu eben eta ordezeko lotsagarri bat ekarri euskuen, Javier Lauzirika jauna. Millak erritar izan ziran erbesteratuak eta asko eta asko eriotzara epai-tuak eta eraillak.

Ona emen Lauzirika Gotzain eta arduradunaren berba iguingarriak:

MUNGIAN - 1938N. URTEAN

"Yo soy un general más a las órdenes del Generalísimo para aplastar el nacionalismo. (Mons. Javier Lauzirika'k)".

"Zuen obispo naz, Jesukristo'ren izenean berba egiten dautzuet: Gure ama España da eta ez dogu gura beste ama zantzarrrik". Mons. Javier Lauzirica'k.

Ni antxe izan nintzan eroan ninduelako eta entzun nebazan itz orreik, baiña amaika urtekoa nintzan eta nire irudimenak gogoratzen dau, ez ostera gomutamenak.

Orduan be España'ko Gotzaiñak irabazlearen alde jarri ziran eta ori egiten dabe beti Toledo'ko Kontzilioak egin ziranetik, baiña gaur gure Gotzain lez euren alde-koak eta gure arerioak jarten dabez.

Gogoratu izenak: Mons. Ballester, Mons. Morcillo, Mons. Gurrupide. Gurrupide monseñor onen aldian ekintza gogorak egin genduzan, Zamora'ko abade-espetze lotsagarri aretan amaitu ziranak, eta arrezkero 25 urte inguru-ruan gotzain egokiak lortu genduzan: Mons. Zirarda, Mons. Añoberos, Mons. Uriarte, Mons. Larrea. Oneik euskaldunak eta egokiak ziran. Gaur Mons. Blazquez daukagu eta emengoa izan ez arren, naiko ondo jokatzeko dau eta Mons. Etxenagusia dau Gotzain-laguntzaille euskaldun lez.

Oraintxe España'ko Gotzaiñak izenpetu daben agiriari, abertzaletasunaren aurka agiri dan idazkiari, Gotzain euskaldunak ezetza emon dautsoe. Orregaitik gure gotzaiñai lotuta geratzen gara pozik. Ori da gauzarik pozgarriena. Baiña Gotzaiñak aurka ba'legoz be, gu isillik eta geurean geratuko gintzakez: Errigintzako eritxiak fede bidean askeak dira eta izan bear dabe.

Naiko isilik eta albo baten geratzen jaku Iruña'koa. Ba-dakigu bere eritxia arlo onetan eta ba-dakigu orregaitik ekarri dabena euskalduna izan ez arren.

Beste alde batetik, euskaldunok antxiñatik onartu dogu fedea eta bide orretatik jarraituz sendotzen dogu erri-maitasuna edo abertzaletasuna.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebago orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 € Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

BAKION MEZA BARRIA

Ramon Goiarrola Belda dot izena, 32 urteko gaztea naz. Gizakiak iretargia leenengo biderrez zapaldu eben egunean, 1969.eko bagilaren 20an, Bilbon jaio nintzan. Niretzako Bilbo eta Bakio banandu ezinekoak dira. Bakion azi eta ezi nintzan-eta, "Arrien" etxean, atan be. "Itxas-Alde" dantza taldean 7 urte emon nebazan. Arrotasunez esan neike, "Agintariena" izeneko dan-

tzan, 5 urtean, ikurrina alborik albo aidean erabili izan dodala.

Naparroako Ikastetxe Nagusian medikuntzea amaitu ostean, Erroman teologia ikasi neban. Abadetzarako deitua izan nintzan, gorputz-arimak osatuteko, uste dot. 2002ko urriaren 1ean abadetzea artu neban Torreciudad-en eta Meza Barria, urrengo domekan, Bakion, Andra Mariaren egunean.

"Pozik egoteko eguna da
danok gaituzu begira
zure apaizgintzak geure barruan
sortu dauan ikusmira.
Meza Barria, zoragarria
bakiotarrak arro dira.
Otoitza lagun, kementsu izan
ez begiratu azpira
egin dozunaz aberastu da
erri onetako kondaira.

Danon zerbitzaria izateko
artu dozu abadetza,
Kristoren mezua zabaltzeko
bai adoretzu zabilta.
Gauzea ondo aurekatuta:
da Birjinaren jaiotza.
Bera zan apal eta umila izaten
oparoa da emoitza.
Zorionak, Ramon, amaitzeko
leertzen dogu biotza."

OARRA: Ramonek Meza Barria emon eban egunean kantatutako bertsoak dira. Bertsoen egilea: Mari Karmen Gabikagoieazkoa.

JON AINGERU GOIKOETXEA

JATABE

Izen biko erria dogu Bizkaiko Maruri-Jatabe. Izen ofizial bi egon arren -bitzuak euskaldunak, ganera- bertako zein inguruko errietako euskaldunen agoetan Jatabe (yatábe, dxatábe) izena baino ez da entzungo euskeraz.

Bertakoak, jatabarrak (yatábarrak, dxatábarrak) dirala. Azken asteotan, barriz, Maruri izena baino ez da zabaldu zuen artean.

Nire eritxi apalean, euskal erabilkereari bidea emon bearko leuskioe euskeraz diarduen irrati, telebista, egunkari, aldizkari zein bestelango edabideak, idatziz zein agoz: Jatabe eta jatabarrak. Esaterako, "Jatabeko abadea ez da jatabarra".

Gora, bada, Jatabe eta jatabarrak.

**Iniaki MARTIARTU
BAKIO**



MOISES BARRIRO EJIPTORA DOA

Era barrituta doa gizon au Ejiptora. Bere begiekin ikusten dau erriaren egoera. Berak maite eban anaidia, egoera larian, miserian, aurkituten dau. Biotzak zart egiten dau-tso, baiña ezin leike edozetan asi, ez lenagoko gizona lez ilten. Erri baten askatasuna gauza balio aundikoa da ta astuna. Oraingoan buruz artuko dau anaien bizikera estu ta mingarria.

Aaronek agertu eutson Israeli Jaunak Moisesi agerturiko erriarenganako ardurea. Erriak pozik ta abegi onez, ikusi ta artu eban Jaungoikoaren eurenaganako ardurea ta lur gainñera makurtu ta auzpeztu egin ziran. Emen dakusgunez, erria asi da Jaunagana begiratzen.

Arazoa aundia ta interesgarria da, edu artako zapalketatik erri bat askatasunera ateratea. Laureun urteko zapalke-tak sustrai sendo ta gogorak eukazan ta zapaltzaillearen nauskieriak urte orren bitartean katei gogorak sortu zituan ta ez egoan inñundik inñora askatasuna emotera.

Moises'ek eginbear astuna eukan ba bere ardurapean, baiña Jaungoikoak eskinitako laguntzaren bidez, erria askatzeko erabagia artu eban.

Aaron izango zan lenengo aurkitu eban lankidea. Gizon au, guztiz, izlari trebea zan ta biok joan ziran Israeldarren-gana Moises'ek emondako Jaunaren aginduz.

Aaron'ek argi ta garbi, azaldu eutson erriari, ta erriak, Jaunaren askatasun-gogoa ta ortarako laguntza ikusi eban, sinistu egin eban ta makurtuz auzpeztu egin zan lurraren gainean.

Moises ta bere lenengo lagunkideak ez eukan arazo makala erri zapaldu baten aur'ean. Ainbeste urtean gorriak ikusten ta euren aragian asmetan bizi izan ziran ta orren inguruan askatasun itza entzutea ez zan bada-ezpadako soinua. Alan da guzti be, Moises ta bere lagunak, Jaungoikoaren esana betetuta, gogoz jardun eban.

Ta gizon onen lana data-ta, Israeldarren artean itxaropena sortzen asi zan. Len, bildurrez beterik egozan gizonak, orbiztuten asi dira. Jaungoikoaren askatasun gogoa curen barruetan eme da, ta ortarako antolabideak euren artean zelan egin arduratzen doaz. Erriaren giroa, aurrerapidean, ennatzen doa.

Moises ta Aaron ba doaz erregearengana ta era onetan itz egiten dautsoe Faraoni: "Jaun agurgarria, eskari txiki bat egitera gatoz. Iru guneko beta bear dogu, leku berezi baten alkar arteko gogaeta egiteko ta Jaungoikoari, opari bat eskeintzeko".

Baiña labea ez egoan opillentzat gertu. Faraon asarre da, arpegi baltza ta bizer zorrotza agertzen dautsez eskabidea ukatuz.

Orrez gainñera asarre gogorra agertzen dautse Aaron ta Moisesi esanez: "Zer dabiltezue inguruak nastetan ta erria bere lanetaik banatzen? (Urt, 5, 4-5).

Faraon famauak ez ekian ta jakiterik be nai ez, gizon bi oneik noren aginduz ebiltzezan Israalgo erriaren askatasun-billa. Geroago zer etorkion gainñera jakin izan ba leu, ziurki, pozik, onartuko eutsen eskabidea, baiña norberekoizko ez-jakiñak sarri ondatu oi dau gizonaren aundikeria.

Alan be, aurrera, doa berenak egiten. Irain bat legez artzen dau Aaron ta Moises'en eskabidea. Bere ustez, ez arma ta ez indarrak ez daben gizon areik, ausardikeri koita-

dua agertu eutsoen bere indarraren aurrean, erregearentzat ez egoan ba, ezpateagaz bardintzeko nagusitasunik, ez aginpiderik.

Ta aurrerantzean, era ortako asmoak kentzeko uste osoaz, len baiño gogorrako artu zituan Israeldarrak ta langille-zaiñei agindu garratzak emon eutsezan alperkerietan ta bere ustez asmo usteletan ibili ez zeitezen denporea ondatzen ta erriaren aurrerapidea galtzen.

Era orretan, ez arnasarik artzeko ta ez txantxetan ibilteko astirik ez eban izango.

Oneik ziran erregearen gizon asmoak, lan gogorren bidez Jaungoikoaren erria zapaldu ta bera ezpataz nagusitu. Ai gizajoa, ez ekian, laster, zerk itxaroten eutson,...

Edonungo ustiatzaille, esplotatzailleak lez, Ejiptoarrak be curen jopuak baztertzen ondo ekien ta gogoz jokatu eban. Lanik egin nai ez daben jente modua dira ta asmeta-koa asmau dabe: Jaungoikoari oparia eskeintzea lanik ez egitearren. Gizon onei lana geitu egin bear jake, alperkerian egon ez daitezen. (Urt. 5, IO. 19).

Gogorkeri oneik dirala-ta, erria makaltzen ta itxaropena galtzen doa. Ta curen zapaltzailleari errua ezartea ez jake gogoratzen. Bildurrez ikaratu dira ta errua Moises'i ta aren nagusikideei ezarten dautse: "Zuen erruagaitik Faraon ta aren Ministruak ezin ikusi gaitue. Zuek ipini dautsazue ezpata eskuan gu ilteko". (Urt. 5, 2-21). Gaiztasun, estutasun ta zapaltze oneik dirala-ta, argia artzen asi zan erria ta bere nagusi argitzaillan aurka jarten da.

Moises larri aurkitzen da era txarrean deusestuta, ezertarako indar barik ta Jaungoikoarengana doa bere barruko keak agertzera, bestelan lertu egin bear dau: "Zertarako bialdu nozu, dirauto Jaunari. Begira, zure aginduz zure erria jagoten asi nintzanetik, inñozko txartoen dago Israel. Ta zuk Jauna, erri onen askatasun alde ez al dozu ezer egin...? (Urt, 5, 2-23). Benetan, aiena gogorak bota zituan Moises'ek bere Egillearen aurrean. Zer ete zan bere barruko egoera, Jaungoikoaren esana bete ezin ta erria auts eginda ikusirik?

Gizonaren samintasunezko negarrak beti entzuten dituan Aitak, Moises'en saminezko negarra ta egoera larria ikusi ta onartu ditu ta adoretu egiten dau gizona. Barriro, bere laguntza osoa eskeintzen dautso. Len eskeinitako agintzari guztiak barriztuten dautsoz. (Urt, 6, I-8). Baiña Moises'i ez dautso agertzen Israeldarren alde bear dan beste egin dauanik ta ezta laster askatuko dauanik. Aparteko laguntzarik ez dautso eskeintzen, euren eginbearra bertan bera itzi ez dagien. Bestela, lan egiteko ta bera be barriro eurekin egongo dala agertzen dautso gogo guztiagaz.

Egoera ontan, erriak sinistutea gauza zaila zan. Ainbeste neke ta zapaltzekin guztiz bildurtuta egoan. (Urt, 6, 9). Aurrerantzean zeregin aundi ta zaila eukan Moises'ek erriagaz. Lurra jota egoan jendea goratzea, ez zan gauza er'eza. Makaltasun aretatik atera bear eban ta biotz-barritu pozagaz.

Egiteen bidez indar-barritu bearko dau aulduta egoan jendetza minberatua. Geldi-geldika bildurra kendu ta Jaungoikoaren laguntza-ustez pozturik, aurrera, egin, askatasuna lortu arte. Ta olantxe, taka-taka, obeto. antolatuko dira, egoera obeak lortuz.

SOLOZABAL'dar Paulin'ek

BIZKAIKO EUSKERA ZUZENTZEN

"BAKARRIK" NOZ?

Izkuntza guztiak daukez maillekoak edo "prestamo" diran itzak. Euskereak be asko ditu: "Sustratoa" euskerearen azpian egoan izkuntzatik artzen danean, "adstratoa" alboan dagoan izkuntzatik artzen danean eta "superestra-toa" gainean dagoan izkuntzatik artzen danean. Eta ez itzak beste barik, esaldi-jatorrak edo modismoak be bai sarritan. Esaterako, aditz laguntzaillea erabilteko oitura ain zabala, latera edo latin deritxon adstratotik artua ei da. Gaur "mai-tatu dot" esaten dogu, baiña latiñaren eragiñez, "amatun babeo". Orrelan ba, euskeraz jatorra "dakust" litzake eta latiñaren eragiña "ikusten dot".

Baiña goazen gaurko arira: Zer esan gura dau "ogei gizon bakarrik etorri ziran?" Ogei ba'ziran ez egozan bakarrik. Obeto esana litzake: "Ogei gizon baiño ez ziran etorri"

Arau lez au ezarri daigun: Erderazko "solo" edo "solamente" adierazteko, euskeraz era bi dagoz: bata "baiño ez" eta bestea "bakarrik". Azkenengo au bat danean erabilli bear da. Adibideak: "Que vengan solamente los hombres". Ez: "gizonak bakarrik datozela". Bai: "Gizonak baiño ez daitezela etorri". Ez: "erdia bakarrik jan dot". Bai: "Erdia baiño ez dot jan". Bai: "Datozenak, bakarrik etorri daitezela, ez lagunakaz". Ez: "Nik eun pezeta bakarrik daukadaz". Bai: "Nik eun pezeta baiño ez daukadaz". Ez: "Eta ez itzak bakarrik". Bai: "Eta ez itzak beste barik".

DAUTZUT/ZAITUT

Gramatikearen eta Bizkaiko euskaldunen artean burruka bat dabil: Gure euskaldunak gramatikearen aurkako bideak artzen eta jarraitzen dabez eta gramatikariak euren aurka dabiltz zarataka. Nork edo zeinik irabaziko dau? Burruka au, beste alde batetik gauzea ikusita, izkuntza guztien arazoa da geiago edo gitxiago eta azkenean erriak irabazten dau, gramatikeak erriaren bideak arauetara ekarri bear dauzalako. Baiña zenbat denpora egin bear dau erriak gramatikearen aurkako burruka onetan? Iñork ez daki itaun oneri erantzuten.

Arao ori argitzeko. ona emen gaurko adibidea.

Orain berrogei urte gazteak esaten eben: "Len ikusizut" edo "atzo ikusi neutzun". Gazteai beti esan dautsegu ori oker dagoala eta orrelan esan bear dala: "Len ikusi zaitut" edo "atzo ikusi zindudan". Baiña ez dauskue jaramonik egin eta gazte oreik berrogei edo irurogei urte egin dabez eta esaldi orreik oker esaten jarraitzen dabe. Gaur bizkaitarrik geienak jokabide oker ori darabille erri-izkuntzan, naizta euskera idatzian iñon be agertu ez oraindiño.

Onaiño eldu gara. Zer egin orain? Aditz-joko oker orreik onartu?

Ez dala eldu sasoiu uste dot. Nik gramatikako aruari jarraituko dautsat oraingoz eta urte askotan izango dala orrelan uste dot: "Ikusizut zure ule zuria eta zeu be ikusi zaitut" edo "atzo Bilbao'n ikusi zindudan baiña ez dautzudaz ikusi zure zapatak".

AITA TA BIOD

Zenbakiak bide dirala, izkuntza bakoitxak bere jokoak egiten dauz eta onartu-bearrekoak dira. Esaterako Israeldarrak ugaritasuna agertzeko zazpi zenbakia erabilten dabe: Jainkoaren aurrean diran zazpi espirituak. Gaztelera milla erabilten da orretarako, baiña euskereak amaika erabilten dau: "Amaika bider artu dozu nire eskutik janaria!" Ona emen Eibar'en entzundako esaldia, erderaz: "Once cosas para ver ya hemos nacido". Esaldi onek euskeraz ondo joten dau belarria: "Amaika gauza ikusteko jaiok gara".

Asko esateko euskereak beste itz bat erabilten dau, Bizkaian gitxienez: Makiña: "Makiña bat gizon ikusi doguz edatetxerik edatetxe!" Berba orrek ez dau ondo joten euskeran, baiña or dago.

Zenbakien arloan ona emen euskeraz baiño aurkitzen ez dan beste esaldi bat: "Joseba ta biok izan gara Errioxa'n". Joseba ta biok iru izan bear leuke eta orrelan dira erderaz, baiña ez euskeraz. Euskeraz bi dira: Joseba ta ni.

URTEN DOT?

Aditz batzuk dagoz bizkaieran, berez igarogaitzak izan arren, igarokor lez jokutzen diranak. Ez dira asko baiña bai antxiñatik orrelan erabilten diranak. Eta tamala da. Ain da gure aditza burubide zuzenezkoa! Olako salbuespen batzuk aurkitzea, mingarri jako gramatikariari.

Olakoak diran aditz bi aitatu doguz: "Urten" eta "igon".

"Gaur etxetik urten dot goizean eta eguerdi-aurretik mendira igon dot". Ori orrelan esaten da Bizkai guztian. Eta beste era onetara izan bear leuke: "Gaur etxetik urten naz goizean eta eguerdi-aurretik mendira igon naz".

Zertara erabilliko dogu?

Nik arazoa aske itziko neuke eta era biak onartu. Dana dala, ezin neike ezkutatu neu "urten naz" edo "urten nintzan" eta "igon naz" eta "igon nintzan" erabiltearen alde nagoala barru-barruan.

BEAR DOT/BEAR NAZ

Ez da sarritan argi agertzen zein dan obeto "joan bear naz" ala "joan bear dot". Argi agertzen da aditz igarokorra: "ogia ekarri bear dot". Bardin jazoten da "ezin naz etorri" edo "ezin dot etorri" diñogunean. Beti dago zalantza bat bata naiz beste artzeko.

Alde batetik "bear" eta "ezin" izen-lagunak izan leitek: "Ni etorri bearra naz" edo "ni etorri eziña naz", baiña neure ustez "bear" eta "ezin" beti erabilli bear litzakez aditz igarokor lez: "Nik egun guztietan etorri bear dot" edo "nik ezin dot etorri egun guztietan" edo "nik ezin daiket etorri egun guztietan".

Ezin ukatu, orregaitiño be, "bear"egaz obeto doala esaldi ori, "ezin"egaz baiño.

ABIZENAK

KALZADA: "Alzaga" bera dala diñoe batzuk eta "K-" gero ezarria. Beste batzuk Kantabrietik etorria dala. Ez dauka ba, euskal jatorria dauan antzik. Erderaz gurpi-dea izango litzake. (Valladolid 1520)

**

KAREAGA: Markiñaldean eta gero Bizkai osoan eta Gipuzkoan. (1533)
Batzuk "kare"tik datorrela diñoe eta karea dagon edo egiten dan lekua litzake. Beste batzuk ori ukatu eta "are" edo "ira"tik datorrela. "K-" gero ezarria.

KARRANTZA: Abizena jatorriz Bizkaikoa da baiña zabal dabil Balentzian eta Frantzian be. (Eibar-1567)
Sustraizko itza "arro" edo mendi-muñoa da, "K-" gero ezarria eta "-an-" eta "-tza-" ta ugaritasuna adierazteko: "Muño asko dagoan tokia".

ZEARSOLO: Elorriion agertzen da geien, Zeanurin be badago eta beste leku askotan. (Elorrio 1533)
Zear lekuan, aldapan dagon soloa.

ZEARRA: Aldapa edo zear doan bidea esan nai dau eta bear ba'da ortik sortuak litzakez "Sierra" abizenak gure artean. Ortik "Zearreta". (Elorrio 1539)

**

ZEBERIO: Izen au daroan Bizkaiko errian sortua da eta andik inguruko errietara eta Bizkai osora zabaldua. Gipuzkoara be bai eta Murtzian be ba-dago. (Isasondo 1698)
"-iba-" oiñarri dala, itz onek "ira" esan gura dauanez eta "-ri" edo "-di-" ugaritasuna. irea ugari dagon tokia litzake. "Z-" gero ezarria eta "-o" tokia.

ZELAIA: Gipuzkoan sortua, gero Bizkaira ta Errioxara ta Naparroara. (Arrieta 1562) (Bergara 1463) (Segura 1384)

Bedar-leku leuna esan nai dau.

..

ZENARRUZA: Bizkaiko abizena da eta ez da asko zabaldu.
Nire ustez, "-arro-" muñoa da eta "Zena-" edo "zean" aldapan dagoana eta "tza-" ugaritasuna. Orduan, "muño asko aldapa baten".

ZINKUNEGI: Gipuzkoakoa da. (Asteasu-1638)
"Zikonia asko dagoan lekua diñoe".

ZIRARDA: Elgoibar'en agertzen da, gero Araban. (Bilbao-1797)

Lora ubelak, malbak, dagozen tokia edo "-irar-" ira asko dagoana.

KORTA: Bizkaian, Gipuzkoan eta Aragoian dago. (1599)
Basoan aberea lo egiteko dan arloa da. Kortabaso ez danean ormazko kortea be izan leiteke.

KORTAZAR (GORTAZAR): Zeanurin sortua da baiña asko zabaldu da batez be Legutiano aldera. (Oñate-1634) (1596)

Korta edo goda, gaberako abere-lekua da eta "-zar, antxiñakoa.

DAÑOBEITIA: Txorierrin, batez be Lezama ta Larrabetzun, dago ugari. (1425)

"-Beitia" zer dan argi dago baiña "daño-"? Mendiagaz zer-ikusian agertzen da. "-año-" mendia izan leiteke eta Daño-beitia mendi-barreneko etxea.

*..

DERIO: Abizen lez ez da asko zabaldu erri orretatik kanpora.

"D-" gero ezarria da eta "-eri-" ira da. "-o" toki-atzizkia. Ira asko dagon tokia. (1705)

ETXABE: Gipuzkoa osoan aurkitzen da.

Etxearen beko-aldea esan gura da, orrelan soloren baten izena. (1429)

ETXABURU: Bizkaian, Gipuzkoan eta Errioxan. (Tolosa 1554)

Etxea baiño gorago dagon soloa esan nai dau.

ETXAGUE(N): Naparroan eta Araban.

Etxea baiño gorago, etxe-goienean dagoan soloa da. (1685)

ETXANDIA: Erronkaritik etorria da baiña Bizkaian be entzuten da.

Abizen onen esangurea argia da.

ETXANIZ: Azpeitian asi eta asko zabaldu da. (Arrasate 1491)

"Etxe-" argi dago. "-no-" txiki atzizkia da eta "-iz" abizena sortzeko ezarria.

Olazar'tar Martin

BARRIALDIA (Modernidad): 3.- ERLEAK ETA ESKU EZKUTUA.

ERLEAK EREDU

1723n. urtean "Erleen alegia" deritxon ipuiña idatzi eban Ingalterra'n bizi zan B. Mandeville osagille olandarrak.

Liberal-barriak deritxen ekonomilariak sarritan aitutzen dabe alegi ori euren onerako, azoka nagusiak dauzan onurak gogoratzeko.

Erleultze edo erlontzi bat agertzen da alegi orretan eta erleultza ondo doa erleak etika barik euren norberekeriak eraginda bizi diranean, baiña erle orreik onera biurtzen diranean, alkarrari laguntzen asten diranean, orduan datorkie ondamendia.

Ortik dator arako esaldi onuratsua: Bakoitxaren bide okerrak, erri-aurrerako onoiemenak dira.

Orregaitik diño liberal-barri oneik, alkarrari laguntzeko biderik onena, bakoitxak berea egitea dala eta alkar-laguntza alkarren kalte biurtzen dala. Txiroai laguntzeko egiten danak, kalte egiten dautsela.

Orretan liberal barriak ez dabe egiten besterik euren jatorrizko pekatuari jarraitu baiño. Eta zenbat kalte egin daben gaur-arte !

MANDEVILLE'REN ELBURUA

Mandeville osagilleak alegi ori asmau ebanean ez eban izan buruan ekonomi-arazorik, naizta erleen bizitzeak ondoren ekonomikoak ekarri. Erleen jokabide okerrak egoera ugaria ekarten eban, baiña ez ziran beste barik ekonomi-arlokoak: Ekonomiak. politikeak eta jakintzak bakoitxak bere legeak daukez eta bat izan leiteke ekonomi-arloan ankerra eta biotz onekoa izan fundaziño bat sortzean edo Eleizeari laguntzean. Esaterako, SS'koak ankerrak ziran nazi lez baiña sarritan euren etxean maitekorrek eta eres klasikua entzuten zaleak.

Baiña Mandeville'ren alegian gauza guzti orreik batera artzen dira eta asieran diño or agiri diran erleak gizakiak dirala.

ERLEULTZAREN ALEGIA AZTERTZEN

Ona emen labor-labor alegia:

Erleultze edo "kolmena" guztiz aundia zan, milloiak erleak bizi ziran curen atsegiñerako lanean baiña beste milloi batzuk lanik egin barik bizi ziran. Batzuk aberats eta lan gitxi, beste batzuk lanik gogorrenak egiten atxurraz eta paleaz. Bizibide guztiak ziran tranpazkoak eta iruzur-eragileak, norabera aberastuteko.

Baiña iruzur egiten eban orreik ez ziran baltzudunak, ez bankariak eta ez salerosleak. Beste oneik ziran: Abogaduak bide guztiak artu eta diru asko aterateko eztabaidak sortuz, osagilleak gaisoen osasuna billatu-bearrean izen ona ta aberastasuna billatzen ebanak; abadeak, batzuk onak eta izlartza dakienak. baiña geienak maltzurak eta ezjakiñak; guda-riak, besoak edo oiñak gudan galdu ondoren, bizitza güztirako saria ateraten ebanak; erriarrak jopu edo morroia curen gurarira biurtu eta ondo bizi ziranak, erregeari zorra oztuta.

Ez egoan erle-aultze orretan erle bat iñorena billatzen ebanik. Kaleetan sortzen zan satsa be saldu egiten eban lurraren ongarri lez.

Eta orrelan erleultzia ondo joian, guztiak oker jokutzen eban eta guztiak batera, atsegin baratz baten lez bizi ziran.

Baiña egun baten agertu ziran oitura onen aldarikatzaileak: "Kendu iruzurrak!", "garbi eskuak!".

Igarle orrein berbea entzun eban eta guztiak joan ziran curen pekatuak autortzera.

Laster galdu eban diruak bere balioa, epaitegiak lan barik geratu ziran guztiak ondo ordaintzen ebelako, abogaduak lan barik, burdiñezko atek eta giltzak egiten ebezanak beste leku batera, osagille onak baiño ez eban lan egiten eta oneik ezin dana egin, abadeak ez eban eskatzen amarrenik, len langille asko egoan lekuan orain bat zan naikoa...

Geienak erbestera joan bear izan eban eta ez ziran geratu erle gitxi batzuk baiño eta oneik zugatz baten zulora sartu ziran eta orrelan amaitu zan erleultza edo erlontzia.

Eta amaitzeko au diño Mandeville'k: Zoroak baiño ez dabe nai guztiak onak izatea eta ondo bizi diranak beti daukez jokabide okerrak.

Iruzurra, arrokeria ta aundikeria bearrezkoak dira, ortik onurea ateraten ba'dogu.

Onoiemen utza ez da naikoa aberriak aurrera egiteko.

AZALPENAK

-Lateriak ez dau sartu bear ez ekonomira eta ez beste arloetara.

-Izukeri okerretik mundu obe bat etorriko da eta Bush'en aldarrikapenak mundu txiroa sortuko dabe.

-Argi agertzen da gizarte usteldua, gaur lez. Eta ori ontzat artzen dau alegiak.

-Ekonomi-arlorako baiño izan ezik, alegia kaltegarria da: Iñongo baltzu-buru batek ez leuke onartuko bere baltzuan.

-Aldi-barrien zale edo "moderno" oneik argi diño euren bizitza eroso beste batzuren gosegaz lortua dala eta ori ontzat artzen dabe. Ori da betiko "jatorrizko pekatua" erizpide onetan.

ADAN SMITH

Berogeita amar urte geroago ekonomilari ospetsua dan Adan Smith'ek bigundu egin eban alegi au "ikusten ez dan eskua"ren bidez. Esku ezkutu au ez da besterik len "Jaungoikoaren ardurea" esaten jakona baiño orrek lortzen dau aberatsen pekatua txiroen onerako izatea.

Ori argitzeko, aberatsak ondasunetatik zatitxu bat, besteen erdia artzen dabela diño, baiña gaur ez dago neurri orretan, 30 urte igaro ondoren, 60'ko neurria eukun aberatsak eta bat txiroak. Gaur 90-1 da neurria.

Eta zergaitik aberastuten dira batzuk neurri orretan eta ez len aitaturako osagilleak, botikarioak, politikuak... Or ez dago esku ezkutuak?

Adan Smith'ek berak be ba-diño gizarte-baldintzak geiago laguntzen dautsela baltzu-buruai, langilleai baiño.

ONDORENA

Mandeville'ren alegiak ez dau aurkitzen erdi-biderik dana billatzen dauanaren eta dana emoten dauanaren artean. Eta ertz bi oneik alkartzea bearrezkoa da: norberaren burua maiztatu eta besteak ez kaltetu. Ortik etorri daiteke zoriona.

OLAZAR'tar Martin'ek

ARRESE'TAR EMETERI (1869-1954)

EUSKAL-ASTEA: **ITZALDIA** (2002-11-29)

Ona emen olerkari bikain bat, gaur egunez ainbeste olerkari lez itzaletan utzitakoa, nabarmentzen diranean, ostera, erdipurdikoak diranak. Arrese'tar Emeteri, nire ustez izadizale ta barrumiñeko olerkari bikaiña dogu, eta bere aldietako abeslari gorenena. Azkue'k eta Arana Goiri'k itzitako bidetik joian euskereari dagokionetan.

Bere bizitzaren aipatuko dodazan gora-beera oneik, Aita Santi Onaindia'ren "Euskal Literatura" liburu aipagarritik artutakoak dira.

Tolosan jaio zan olerkari au, 1869'ko Epailla'ren 3'garrenean. Aita tolosarra izan zan, baiña Gasteiz'en urte asko emon ebazan, eta emen Bauduer (prantzitar etorriko) andereiñoa ezagutu, eta ezkondu ziran. Emeteri mutilzar izan zan bizitza osoan, bere maitasun andia, aberriaz bestalde, bere ama izanik. Onen eriotzak bere baitan barrumin bizi-bizia piztu eutsan, eta nire ustez, amaganako maitasunak bere olerkirik gorenak piztu eutsazan.

Tolosa'n Eskolapio'tarren ikastetxean bete zituan bere ikasketak. Aren izakera urduri ta ameskorrari bide emonez, Ameriketara joan-etorri ugari bete zituan, eta pelotazaletasunak erkarrita, Habana'n, Merida'n, New York'en, Buenos Aires'en etabar, frontoiak eraikiz pelotazaletasuna zabaldu eban. Augaitik, diruari buruz, gora-beera andiak izan zituan.

Berez, biozti ta adeitsua izanik, bizitza ez yakon samurra izan, bere olerkiak adierazoten dabenez. Mutilzáarra izateak bere bizitzaren bakartasunari be, lagunduko eutsan ezpaibarik. Errimiñak, amaganako maitasun andiak, eta aberritik lekorean ain sarri ta luzaro ibilteak, eragingo eutsan nonbait, olerkietan bere barrumiñari bide emotea.

1903n. urtean, bere amaren eriotz-barriak Habana'n artu eban. Egun onetan bertan, "ama" olerki samurra idatzi eban.

Illotzik zauden ama lastana!
Sarri nik obitegian,
neure min eta penak esango
dizkizut ixil arian,
illak bakarrik entzuten duten
izkera maitagarrian.

Bizitza emon eutsan ama itzita, joan zan urrutira, eta orain semea biotz-negarretan dago amaren oroitzak jota...

Larogei urtekoa zala, Donostia itxi, eta Tolosa'ra joan zan, emen 1954'ko Jorrailla'ren 7'garrenean. 85 urteko zala, ilteko.

Zelako olerkaria izan zan...? Nire ustez barru-min osoko olerkaria. Bere aberria ta amaganako maitasun biziagaitik olerkari andia biurtu zan. Olerkariak baiña ez dira egiten, barruan daukien Jaungoikoak emondako doaiaren jabe izan bear dabe, eta doai onek emondako eragintzaz curen barru ederra adierazoten dabe besteakan maitasun txinpart ederrak ereintzen eta sakabanatuz. Olerkaria zan Emeteri olerkaria, eta ni bere olerkigintzak piztuta, oroitz maite baten goratzarrentzat, lerro oneik idaztera eragin nabe.

Argitara iru liburu emon ditu:

1. "Nere bidean" 200 orrialdekoa (Tolosa 1913). 1913 urteko jaietarako atondutakoa. Onetaraxe egiten dau txorta onen aurkezpena: "Udazkeneko txori-negarrik orbe] tartean banatzen diran bezela, goitiztosto zurbil oietan mintsu dijoaz, ez dakit nora.....nire biotzeko eresirik geienak. Ez arritu; neke gabe, arin txoro, pozekko lorategian pinpilinpausen eraz nebillela zirudin garaian poz-eztia baiña aldi geigotan arkitu izan det zorigaitzeko lixtorra. Toki gorde ta irixpide zallean dago nunbait bizitz ontako ezti leun ori".
2. TXINDOR (Donostia 1928) 158 orrialdekoa, irakurleari diñotso "Nere bidean aspertu ezik osteralen bezin ameskor eta zaletsu ibilli naizen aldiko gorabeerak idatzi batean ezarri ta beronekin gaur zugana abegi on esker nator. Emen darakustan olerki-sorta belaxka izan arren, nere gogozkiko arduraz urri ez dago beintzat..."
3. "Olerki Berrizte" (Zarautz 1952) 111 orrialdekoa. Berrogei ta bi olerki. Ona emen aurkezpeneko zati bat: "Alperkerizko Iastai bigunean etzinda ote nengon, zenbaitek ala uste izan arren, aldapa gogor zalletik ibilli naiz. Gauz bat bi bider esan besterik ezpaltiz, nekez ari bearrik ez nuen izango, errexean jardun eta nere arazoari laister azken emango nion..."

Olerkari bat benetan ezagutzeko, arein olerkiak ezagutuarazotea da biderik onena. Aspalditik etxean neukan eta sarri-askotan irakurritako "Olerki Berrizte" bildumatik artutako olerki batzuk osoak edo zatika, ezagutu-arazoko dautsuedaz, zelako jasekoa zan Arrese'tar Emeteri ezagutu dagizuen. Ona emen ba, ezaugarri batzuk.

EUSKAL-ASTEIA

AMA

Zorigaitzaren asgabe latza
leguntzen dute malkoak
lore zimel bat udan bezela
egun-sentiko lanbroak.
Argaitik orain negar eta negar
ase nai luke kolkoak
t'argaitik orain negar eta negar
maitatzen ditut bertsoak.
Auek gotiñar antzera zaizkit,
suznoz iñar kidekoak,
mara-mara gaur nere barmendik
ixuritako tantoak.

¡Ama...! itz au dan goraltzigarri
ain xamur, aratz, kutuna...!
Ama da leirik onenak beti
ernarazten dizkiguna,
Jainko'ren urren ama guk ordu
zalletan aipa deguna,
biotzetiko egimen eder
guztiak berez dituna.
Ama zan gaxo negon aldiro
gau t'egun zaintzen niñuna,
ta amarik gabe larri, etsi-zail
nekezko bizitz astuna...

Etorkizun on bat neukalarik
iritxi naiaz ohea

euskal-erritik urrundu nintzan
amets-irudiz betea,
Une txar batez arturik ala
bear ez nuen bidea,
atsegin ordeaz arkitu ditut
arazo ta naigabea.

Bein eta berriz, geitu ta geitu
ixuri bezait negarra,
beriot aunitz gogoratuta
il zaidan ama laztana,
irten-goizean egunargitzez
ixil-ixillik nigana
erdu ta musu betezaletan
buguinki eman zidana.
Etzait aztuko negarrez
ni ez ikusteagaitik
luzaro nola egon zan bere
gela-txokoan bakarrik.
Maiz burura zait gaxoak neri
azkenekoz muin-egiñik
esandako au: "Seme bazoaz
amaren aldamenetik...!"

betiko gabaz nere bizitza
estaliko gaurtandik.
Itz oneik entzun t' alaz ere ni
eskergabeko semea,

urrundu nintzan... Arrezkero beltz,
illuna nere bidea.
Zerk bururazi, zer aizek Euskal-
erritik aldegitia...?
Leze bat emen, utzirik ango
babes ain goxo maltea...!

Egunero itsas-ertzean nabil
ipar-alderuntz begira;
alditxar guzik erabat nigan
gañezka bildu baitira.
Luzapenez min... Alik laisterren
itzul nai det sorterrira,
ama xar maite gaxoa nere
galdezka il zaidan tokira.

Jaunaren deyaiz igo zera-ta
orain ain oztin garbian
zure anima, ta korputza lur
gurutze baten azpian.
Illotzik zaidan ama laztana,
sari nik obitegian
nere min eta penak esango
dizkizut ixil arian
illak bakarrik entzuten duten
izkera maitagarrian.

TXANTXANGORRIA

Osto geienak ezetasunik
gabe zimel daudenean
ta batez ere mitxirrika illen
antzera darortzenean
begiak xabal-xabalik adar
billuzi baten gañean
egoten zera, txantxangorriya,
negarrez udazkenean.

Ain bakar, txukun eta geldiro
jardun oi zara kantuan
non beti ernai zuri begira
egon arren bat onduan
atsekabe ta miñeriturik

kantari zauden orduan
ari zeranik iñoiz ez dizu
atzik emango mokuan.

Eta onela amaitzen du olerki polit au,

O txori gaxo, sotil, polita,
biotz erien laguna,
txirulioka negar ugari
eztiro dariyozuna:
Zu zera beti, txantxangorriya,
zu zera txantxan-iztuna
alakoxe gaur maitagarri bat
erakusten diguzuna...!

Ots-egiten dit, ots eme kutun,
lengoxe deia ber-bera.
Malkarrik ez dun oroimen-bidez
noan iturri maitera.

Bizkorraldia...! Bat-batez orain
urrats arin, gogo txosper
ain txingar sortu zaidan kemenak
zut-zutik narabail gallen.
Gero amilduko banaiz ere
txapalda loretsu baten
babesa orain arki detanez
nere barru jairik onen...!

Eta olerki onen bidez amaitzen dot Arrese'tar Emeteri'ri buruz irazezan egindako azterketa au, geiagorako astirik ez-eta. Olerkari onek beste askok lez, gaur ez dau artzen merezi dauan begirune ta aipamena, bai ordea, belaxka diran zenbaitek. Euskerarekiko illunaldi baten murgilduta gagoz, euskeraz jabetu diranen eragintzak geiagorako emoten ez dauselako, urrean. Edozelan be, nire ustez, ona dana beti ona, eta urteak joan urteak etorri, gure benetako olerkariak, euskal elertian merezi daben lekua artuko dabe.

Besterik ez, Jaun-andreok

Zubiri'tar Iñaki

IZKUNTZAK GALTZEN?

IZKUNTZAK GALTZEN?

Gaur izparringian irakurri dodan albiste batek bultzatu nau idaz-lan au gertatzera: 6.500 izkuntza ei dagoz munduan. Nik askoz geiago zirala uste neban, baiña jakitunen esana da eta bego. Baiña izkuntzarik geienak galtzera ei doaz, gitxi batzuk geroago ta indar aundiagoa artzen doazen artean. "Unesco" k diñoana ei da ori.

Eta ori orrelan izan ezkeru, zer izango da gure euskeraz?

LATIÑARI JAZOA

Euskerea baiño askoz geiago zabaldua egoan latiña, eta indartsuago igon zan Ikastetxe Nagusietara, baiña latiña ortxe il zan, jakitunen artean erabilten zalako. Orregaitik gertatu eutsoen egoitz ain ederra bere asken urteetan: Jakitunen artean il zan, baiña il egin zan.

Eta latiña egoitz eder orretan bizirik egoala, latin berba egiten eban erri zeiak zer egin eban? Latin berba egin baiña txarto, lendik eurak euken izkuntzagaz nastatuta eta orrelan Ikastetxe Nagusietatik kanpoan latinkumeak bizi ziran: Portugaldarra, frantziarra, italiarra, errumanotarra, tiroldarra eta abar. Or jarraitu eban latiñak bizirik, seme-alabengan gurasoak bizirik jarraitzen daben antzera.

ELEBITASUNA?

Izkuntzen burruka onetan elebitasuna izaten da urrats bat: Izkuntza zarra iltera doan artean, erbestetik etorritako beste izkuntza bat sartzen da eta biak batera bizi izaten dira luzaro. Ori da elebitasunaren aldia eta aldi orretan dago gure euskerea: Gure aitak eta amak ez ekien erderarik, guk euskerea eta erdereak biak darabilguz eta gure seme-alabak edo illobak ez dakie euskerarik. Negargarria!

ERRIAN ETA IKASTOLAN

Baiña euskereak ez dauko arean be ilteko gogorik eta euskaldunak be, eritxi guztietakoak batera dagozela, euskerea indartzea gura dogu.

Orretarako euskerea sartu dogu Ikastetxe Nagusietara, batxiller'era, ikastoletara... Or ilgo ete da latiña il zan leku berean? Bai erriak eta errian euskera egiten ez ba'dau eta erdereagaz geiegi nastauta egiten ba'dau. Errian egin bear da ba, euskerea, eta euskera garbia: Fr antzi'ko ta España'ko berbak larregi sartu barik. Au egiten ba'dogu, errian latiñari jazo jakona jazoko jako euskereari: bere lekuan izkuntza barri bat sortuko da, euskerakume bat, latinkumeak sortu ziran lez. Eta orduan bai, orduan euskerea euskal Unibertsitatean, gela eder baten eta jakintun-artean ilgo da.

ERRIARENTZAT LIBURUAK

Zer egin bear dogu ba?

Bidea argi dago: Errian euskerea garbitu, sendotu, zabaldu. Orixe da ain zuzen be EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN ERRI-AKADEMIA'ren zeregiña, bakarra edo beintzat aundiena.

Elburua elburu da, baiña zer egin bear dogu, zein da bide egokia, elburu orretara eltzeko?

Errietara joan eta antxe egin ekintzak. Esaterako euskerearen egunak, euskaldunai omenaldiak, liburuen aurkezpenak eta abar.

Eta liburu irakurgarriak be idatzi bear dira. Gure erriak gitxi be gitxi irakurten dau, baiña idazleak be ez dakie erri-maillara jatsiten: Erriari bere gauzak azaldu bear jakoz, esaterako erri txikien edestia, erriko gizonen bizitzak, erriko abizenak, erriko toki-izenak... eta olako gauzak agertzeko irakurgai errezak idatzi eta eurai emon. Orixe izan da oraintsu idatzi dodan Milian liburuaren elburua eta elburu ori lortu be egin da. Erri txikietan askok irakurri dau eta neuri iragarri dautse ori. Antzera esan bear beste nire liburu batzui buruz: "Fruniz'tarrak len eta orain", "Mungia ta Mungiarak" eta "Gamiz'tarrak", au argiratu barik.

Eta omenaldiari buruz, aitatu daigun "36'ko gudan suizkillutatu idazte gazteak" liburu. Au asko zabaldu dogu eta eskerrak emonez 30 bat eskutitz artu dodaz. baiña Donostia'n egin gendun aurkezpen eder eta gogoangarri bat, beste bat datorren artean egingo dogu Bilbao'n eta irugarrena gertatzen diardugu Lurgorri'ren jaioterri zan Aramaio'n egiteko. Ba-dakit Aramaioarrak bizi-bizi dagozela aurkezpen orretan kideko izateko.

Gu gertu gagoz lan eder au egiteko, baiña zori txarrez diru-aldetik urri gabiltz. Liburu guzti oneik neure diruagaz ordaindu dodaz eta gero duan emon.

DANA ZERTARAKO?

Eta zertarako ainbeste alegin euskerearen alde? Ba, gure nortasuna ortxe dagoalako, gure edestiak ortxe daukazalako barririk ederrenak, aurretikoakandik artu dogun altxorrik aundiena dalako, beste erri guztien artean dagoan jakintza osotzeko bidea dogulako, euskereak euskalduna egiten daualako edo euskereak gure nortasuna sortu, sakondu eta indartu egiten daualako. Ez dogu bardin pentsatzen euskaldunak eta erdeldunak eta alde ori izkuntzaren indarra da geiena.

Ikasi daigun euskerea, sakondu daigun euskerea, zabaldu daigun euskerea, edertu daigun euskerea.

Olazar'tar Martin'ek.

OTO TA POTOTO

Istorio-Mistorio.

OTO CAPITALISTA USTELA.

Arrote antzera ebillen Oto aldi aietan: patrikeran dirurik ez.

Sartun da Donostiko osturik ederrenean.

Eseri da patxara lasaienean.

Ukeratu ditu platerik goxoenak; langosta, angulak, solomilloa... eta ardorik onenak.

Postreri atsegiñenak; kopako frantzesak eta Habana'ko pururik galestiena.

Bapo bazkalduta gero, deadar egiten dio morroiari:

—Aizu, txo, esan nagusiari etorteko.

Or nun datorren presaka etxeko nagusia prakak galtzeko moduan:

Zer nai dau beorrek, nere jaun orrek?

—Laga beorrek mendian...

—Zer agintzen deust, jauna?

—Begira, joan dan urtean, zuk ostikoka bialdu ninduzu etxe onetatik ordaintzeko aukerarik orduan ez nebalako.

—Barkatu, jauna; barkatu milla bider; barkatu amar millabider... Miñ aundia eman zidan beorreri orrelako naigabea emoterik...

—Ba, uste dot aurten be nerekin miñ aundia artuko dozula.

Barru aretan zer pasa zan ez dakigu; baña, kalean zijoazenak txapel bat ikusi eben aidean kale-erdiraño... eta txapel-odoren Oto'ren burua txapel-billa... Kale-erdi-ko arri landuetan itxi ebazan ortak eta agiñak.

DONOSTIKO BULEBARREAN.

Donosti'ko bulebarra, aundikien egoitza.

Uda bete-betea.

Jendea gañezka kafeterietan.

Orra or, kale-erditik, Oto ta Pototo, bata bestearen ondoren. Bakoitzan bere eskubia lepo-parean dakarre. Esku-azpiak gora begira.

Gerra-ondorenak.

—Ni?

Bai, zu! Betik ikusi zaitut!

—Bueno... bai ba...

—Zergatik egin dozu ori? (Guardia zibillak Oto'ri).

—Ara, jauna, txakur gaizto orrek ainka egin nai zidan da...!

OTO PINTORE.

Krisis-garaian ofizio berriak proba ta proba, etxegintzari eldu zioten, bai Oto'k eta bai Pototo'k, esan dogun bezela. Betiko lagun zaarrak ziranez, negozioa alkarrekin eramatea erabaki eben.

Etxegintzan aurreneko Oto'ren lana auxen izan zan: Ladrilluak alkarren gañean imintzea errenkadaka. Pototo'k, berriz, pintoretzan probatzea erabaki eban. Ladrilluekin lan egitea baiño ohea zan, beintzat, eta... Erakarri zuan Oto pintoretzara.

Oto'k Pototo'ri:

Nik ez diat pintore izateko trebetasunik... Ez nau ortarako jaio...

—Probatu al dok sekulan, ala?

—Ez, ez diat probatu.

Egin dezagun ba.

x

Etxegintzan ez zan lanik palta.

Eta etxegintzan pintoreak bearrezkoak izan oi dira... Etxeak egin ondoren margo ederrez apaintzen dira. Etxe bateko pintoretza, bion artean, bere kontura artu zuten.

Eta, jakiña, bakoitza norberentzako ari danean, ez da lo egoten, presaka, baizik. Alan zebiltzen Oto eta Pototo, etenik gabe eta presaka...

**

Pototo ari zan eskallera baten muturrean pinta eta pinta... eskua gora eta eskua beera... Gora eta beera... Etenik gabe.

Alako batean orra or Oto nun datorren laiterka. Bai, ba, eskallera lanari segitzeko;

-Aizak, i, Pototo, eldu gogor brotxari!

Ori esanakin batera, kentzen dio eskallera... Pototo'ren bizkarrekoa... ! Ta Oto'ren anka-otsa...!

—Ni?

—Bai, zu! Betik ikusi zaitut!

—Bueno... bai ba...

—Zergatik egin dozu ori? (Guardia zibillak Oto'ri).

—Ara, jauna, txakur gaizto orrek ainka egin nai zidan da...!

OTO PINTORE.

Krisis-garaian ofizio berriak proba ta proba, etxegintzari eldu zioten, bai Oto'k eta bai Pototo'k, esan dogun

bezela. Betiko lagun zaarrak ziranez, negozioa alkarrekin eramatea erabaki eben.

Etzegintzan aurreneko Oto'ren lana auxen izan zan: Ladrilluak alkarren gañean imintzea errenkadaka. Pototo'k, berriz, pintoretzan probatzea erabaki eban. Ladrilluekin lan egitea baiño ohea zan, beintzat, eta... Erakarri zuan Oto pintoretzara.

Oto'k Pototo'ri:

—Nik ez diat pintore izateko trebetasunik... Ez nau ortarako jaio...

—Probatu al dok sekulan, ala?

—Ez, ez diat probatu.

—Egin dezagun ba.

Etzegintzan ez zan lanik palta.

Eta etzegintzan pintoreak bearrezkoak izan oi dira... Etxeak egin ondoren margo ederrez apaintzen dira. Etxe bateko pintoretza, bion artean, bere kontura artu zuten.

Eta, jakiña, bakoitza norberentzako ari danean, ez da lo egoten, presaka, baizik. Alan zebiltzen Oto eta Pototo, etenik gabe eta presaka...

Pototo ari zan eskallera baten muturrean pinta eta pinta... eskua gora eta eskua beera... Gora eta beera... Etenik gabe.

Alako batean orra or Oto nun datorren laiterka. Bai, ba, eskallera lanari segitzeko;

—Aizak, i, Pototo, eldu gogor brotxari!

Ori esanakin batera, kentzen dio eskallera... Pototo'ren bizkarrekoa. ...! Ta Oto'ren anka-otsa...!

OTO MENDIGOIZALE.

Oto'k fabrika-lanari ekin zionean, orduan mendi-miña sortu zitzaion biotz-muñean. Osasungarria zala eta... Mendi-gañeko aize meea bearrezkoa zutela birrikak eta... Mendigoizale egin zitzaigun Oto sasoiezko gizona.

Inguru autean Alpes'erik izan ez arren, mendigoizaleei alpinistak esaten dicte. Txindoki'ra doazenak, alpinistak...? Ala txindokistak?

Oto'ren lenengo irteera, San Adrian'dik gora, Aizkorri'ra.

Toki zoragarri artan, arratsalderaiño.

111 unabarrean, eguzkiaren lotaratze lilluragarriari begirara:

Urrezko bola baten
Itxura du artezen
Eta geldi-geldikan
Mendipean sartzen...

Kanta-kantari, uste gabean, illuna erori zitzaion gañera... Illargi-berri, gau beltza eta katuen begirik ez, ontzenak gutxiago, argitik illunpera pasatzean ez zuen tutik ikusten... Lañoa ere sortu zan eta, mando zaarra begien aurrean jarrita ere, ez zuan Oto'k ikusiko gau artan.

Estropozo emen, estropozo an; nora zijoan ez zekiela, geldid egoteko ere arduriegi zegoelako edo, Oto beti aurrea.

Aurrera...!?

Bai, bai... Toki ederrean zegok...!

Ankakin arri kozkorro jo eta an zia zilipurdika mendian beera...!

Noraiño jauzi zan ez zan konturatzen; baña eskuan zekarren bastoi-makilla galdu zuela, ori bai konturatu zan.

Makilla ederra ala ere!

Leoi-burua zuan eldu-lekurako.

Galdu egin ote du, ba? Itxumustuka eskua luzatu... eta, suerte bedekintua, antxen zegoen leoi-buru ori, bere uñen ondoan...!

Artu dau bastoi ori eskuan...

Galduta ikasten ornen da eta aurrerago joateko, bastoi-makillakin probatu gabe, ez du pausorik aurrera geiago emango. Eskuan duen leoi-buruakin asi da probaketan, pausoa aurrera emateko, laño eta gau illuna tarteko, ez bait da ezertxo ere ikusten.

Lenengo probaketa bere aurrean... Leoi-burua, lurre-raiño:

—Eneee...! Emen neure aurrean amiltokia dago!

Probatu du bere atzetik, eta berdin, leoi-burua, berriz ere, lurre-raiño:

—Emen be, abismoa...

Eskubitik eta ezkerretik, antzeko:

—Amiltokia...! Abismoa...! Aitz-mutur baten puntan nago. Nagon bertantxe geldi-geldi, zirkiñik egin barik. Noiz-baiean argituko du eta laño beltz auek aldenduko dira...

Kuskurtuta gau guztian, mogimenturik egin gabe... Oto'ren bildur luzea...

Nekez, baña, argitu du.

Nola leiteke...?

Oto zelaintxo batean dago.

Zelai-gunearen erdi-erdian. Aitz-muturretik ara, sorgiñek eraman ote dute? Ireltxoek izan ote dira? Larniñek ote...? Basajaunak Oto'ri:

—Zer sorgin eta zer lamiñ, gero...! Begira egiok ire makillari!

BARREGAIAK

—Jauna, zer du nere makillak...?

—Ez al dek ikusten makilla apurtuta? Eskuan muturra bakarrik daukak. Leoi-burua eskuan eta beste guztia falta... Orra ire abismoa eta amiltegia... Ja, ja, ja...

Oto ao-zabalik... Basajauna algaraka basoan zear... A zer tonto-lapikoa!

GABONAK GERRATEAN.

Gabonak... Trintxera-zuloetan pasa bear Gabonak... Oto eta Pototo'k txabolatxo bat ere egin zuten bertan, neguko otzari gogor egiteko.

Etxetik bidaldu zizkien pakete aberatsak: lukaika, makallau, piku, intxaur, sagar, pattar eta puru "Farias" zoragarri ak ..

Txabolan bapo apalduta, puruak erre nai eta poxpolorik ez:

—Aiak i, Oto, joan ari or, trintxeran zear su-billa, bes-tela ez diagu gaur purorik erreko...!

**

Irten txabolatik eta or dijoa, trintxeratik trintxerara, soldaduei sua eskatzen:

—Poxpolorik bai...?
_ Poxpolorik ez.

Iñork ez zuen poxpolo miserable bat danen artean... Bai, ba, Gabon bezperan eurite aundiak izan ziran da...

Zer egin?

Bear danean ez zaio Oto'ri argirik falta...

Pentsa eta egin.

Alanbre-sare azpitik nekez pasa eta or dijoa beste alde-ra:

—Izango al dute gure etsaiek poxpoloren bat... Gaur pururik erre gabe ez noa lotara...

Alanbre azpitik pasatzean, orra txamarra eten eta gañera txapelean tiro bat artzeko arriskuan ipiñi bere burua...! Baña, beste gabe, eldu da aurreko trintxeratarra. Oto'k zentinelari:

Poxpolorik, bai...?

—Ez poxpolo eta ez errekiñik... Emen ez zegok gosea besterik...

Alperrik ibilliko aiz.

—Agur ba, mutil, eta eskerrik asko!

**

Alanbre-sarea berriro pasa eta elduda bere txabolara. An zegoen Pototo urduri:

—Ezer topatu dok?

—Ezer ez...! An ez dago gosea besterik... Alper-alpe-

rrik egin zetiari ibillera guztiak... Frente osoan ez zegok poxpolo bat bera ere!

—Zer egingo diagu ba... Beste erremediorik ezean, egin diagun lo. Itzali kandela ori!

OTO ETA POTOTO MUGALARI.

Bi lagun zaar onek, beti alkarrekin. Gerratean be bai. Frantzi-aldetik arrapatu zitun eta etxera len-bai-len biur-tzea erabaki eben.

Bai, baña nola?

Mugak itxita zeuden.

Irikita egonda ere, pasaporterik ez.

Baña, geure mutilok, tonto utsak ez zira, (galdetu Pototo'ri) eta aukerako bidea aurkitu zuten andik iges egiteko:

—Oto, zurezko bi kajoi aundi egindo doguz...

Zertarako?

—Emendik irteteko.

—Nola irten...?

—Irten ez, sartu!

_ Emendik irten bear degula ez al dok esan, ala?

_ Emendik irten, baña kajoietan sartu.

—Pototo, I ez ago burutik ondo... Gu kajoietan sar-tun...!?

—Bai, merkagiak bagiña bezela.

—N000...! Ik dok burua, ik... !!!

Mugara eldu ziran kaja zaar aundi aiek Pototo'ren kajari begira karabiñeroek alkar;

— Zer ote dakar kaja orrek?

—Kaja aundia dok ori.

Pototo'k karabiñeruen berbak entzutean, asi da kantari:

- Kikirriki... ! Kikirriki... !

— A. bai: 011 arrak burrukarako.

—Pasa aurrera kajoi ori.

Eldu diote bigarren kajoiari. Pototo'ren suetearekin konturatu zan Oto. Berak asmatuko eban zer-edo-zer...

— Bigarren kaja ori...

—Au ere astuna dok. Zer ote dator bere barruan?

Ori entzutean Oto'k onela dio indarrez:

Patatak!

**Arrinda'tar Anes
Deba: 1968**

5.- ELENDARRAK EDO GREKOAK

Grezia'tarren edertia agertzeko liburuak eta liburuak bearko geunkez: ain da ugaria, aberatsa, sakona ta ondorentua! Baiña idaz-lan baten labur agertzen aleginduko gara.

Iru zati egingo doguz: 1.- Antxiñakoak. 2.- Klasikuak eta 3.- Elendarrak.

5.1. ANTXIÑAKOAK

Izkuntzan naiz edertian iru erri batzen dira Grezia osozko: Dorioak, jonioak eta korintioak.

Naizta geroago idatziak izan, dorioen aldiari jazotako gauzak dira Homero'k Iliada ta Odisean diñozanak (K.a. VIII gizaldian). Rapsoden eta Aeden abestietan ebiltzan jazokizun orreik Homero'k batu ebazanean.

Saso'i aretan asten da gero aundia ta sakona izango dan filosofia: Mileto'ko Tales, Anaximandro, Parmenides eta Eráklito, Pitagoras, Anaxagoras, Demokrito...

Barrumiñezko olerkian Anakreonte'k mai ona goratu-ko dausku, Safo emakumeak barru-miña, Pindaro'k Olineo'ko jokoak.

Antzerki-arloan Sofokles dogu nagusi aldi onetako gaia azaltzen. Or Edipo.

Etxegintzan iru erak asten dira, doriku leuna, bolutadun jonikoa eta akanto-lorak dauzan korintioa. Jauretxe egileek be asko eta onak daukaguz eta irudigileak be bai.

5.2. GREKOAK

Klasikuen sasoi da gutzat jakingarriena. K.a.'ko 500n. urtean asita, lenagoko ainbat erri-zar aztertu ondoren, munduko jakintzaren gerengo maillara eltzen gara eta jakintza onek ikutu aundia dauka gure izakeran. Grezia'tik datorkuz edertia, filosofia, erlejiñoa, literatura,... eta zer ez! Legegintza itziko dogu Erroma'tarrentzat, beste dana Grezia'tik etorria da.

K.a.'ko 511n. urtea da giltza: Ortze dagoz Grezia'ren oiñarriak, eta k.a.'ko 336n. urtean Alexander aundia dator eta onek aginterri aundi bat sortu eban, baiña ez eban jakin iraupena emoten, erromatarren legegintza ez eban lortu, ez eban jakin lortzen.

Iru-aldiak onetan banatuta dagoz:

— Jakitun zarrak (K.a.'ko X'tik V gizaldira).

Klasikuak: K.a.'ko V eta IV gizaldiak.

Elendarrak: K.a.'tik IV gizalditik Erroma'ra.

K.a.'ko VI gizaldian lortu zan agintari zakarrak edo tiranoak kentzea. Klistenes'ek egin eban ori Atenas'en "demokrazia" sartzeko.

K.a.'ko 490n. urtean Jonitarrak Pertsia'ko Satrapa baten menpean egozan oraindiño, baiña, Atenas lagun ebela, matxinadea egin eban eta Maraton'eko gudaldia irabazi. Emen zapuztu eban Milziades eta Persiatarren gudarostea (K.a.'ko 489n. urtean). Ori izan zan Medoen 1º guda. Amar urte geroago Xerxes'en aurka gudakatu ziran, naizta Delfos'ko aztiak geldu egingo ebela esan, k.a.'ko 480n. urtean Termopilas'ko gudaldia irabazi eban Leonidas buru ebela, gero Salamina'n, Platea'n eta Mikala'n urten eban grekoak nagusi (Medoen 2n. guda). Gogotsu jarraitu eban guda, Espartarrak lurrez eta Atena'tarrak

itxasoz eta 30 urteko guda egin bear izan eban Peloponeso'n. Ez ziran ondo alkartzen Atenas eta Esparta.

K.a.'ko IV gizaldian Filipino daukagu errege Mazedonia'n, baiña uriak euren askatasuna euken danerako.

Antxiñako filosofizaleak len aitatu doguz, eta euren filosofia zalantzan amaitu zan, sofistak nagusi zirala, Elea'ko Zenon ospetsuena. Baiña aldi nagusia Sokrates'egaz asten da, maieutika edo galde-erantzunak bide dirala. Inguruan dabiltz Zinikoak atsegin utsa billatzen eta Epikuro'tarrak atsegiñak be aukeratzen eta estoa'tarrak ez atsegiñak eta ez atsekaberik ez dala billatu bear esaten.

Baiña Sokrates'en entzule eta filosofo aundia izan zan Platon. Onen filosofia burutik asten da, kanpoa ulertzeko, eta Akademia eritxon taldea sortu eban.

Aristoteles bere ikaslea dator gero eta onen filosofia zentzunetatik asten da. Peripatetikuen eskolea sortu eban, ikasteko ibilli egiten ziralako.

Klasikuen literatura edo elertia aitatu baiño ez: Trajedian Eskilo ta Sofokles, drama'n Euripides, Komedia'n Aristofanes, Mimoa egoan asko baiña galdu egin da, Edestian Erodoto, Tuzidides, Xenofonte; Izlaritzan Lisias, Eskines eta Demostenes beronen Filipika ospetsuak; Lirikan zarrak bizi dira.

Etxegintzan oso onak izan ziran iru eratan (Doritarrak, Jonitarrak eta korintotarrak).



Partenon Akropolis edo uribur u n dan jauret.ve ederra.


Partenon: Perikles ospetsuaren aldiari egin eban Kalikrates etxegiñak. Dorikoa da eta 8 age ditu aurren 17 alboetan. Barruan iru alde: Naos, pronaos eta opisthodomos. Fidias'en frisoak dira ospetsuak eta Bretonia Aundiko Museon dagoz.

Erektion jauretxean daukaguz Kariatide ospetsuak.

Atena Nike jauretzea be ospetsua da, joni-tankerakoa eta Kalikrates'ek egiña.

Iru kapitela motak bereizteko kontuan artu: Korintioak akanto-lorak ditu, Jonioak bolutak eta Dorioak ezer be ez, arri leuna baiño. Geroago nastatua agertu da ber-jaiotzan: akanto-torak eta bolutak.

Irudigintzan Milon, Polikleto ta Fidias dira nagusi.




Erekteon Jauretxean Kariatidek, age-antzeko eueakumeak.



Miron'en Diskoboloa kanona ondo zaintzen dauan irudia.

5.3. ELENDARRAK


K.a.'ko 336n. urterako, Grezia'ko pentsaerak mundua artuta eukan baiña urte orretan Macedonia'ko Filipino ii eben eta Alexander bere semea jarri errege. Onek sortaldeko erreinu guztiak azpiratu ebazan: Persia, Siria, Fenizia, Palestina, Ejipto, Mesopotamia, India... eta danera sartu eban Grezia'n egoan jakintza.



Azken-aldiko irudi sentikorren artean laokoonte eta umeak zuge-artean.



Azken-aldiko iruki sentikorren artean "Burru kalariak".



Azken-aldiko irudi sentikorren artean galoa iltzear.

Aldi onetan lengo jakintzari eutsi nai izan eutsoen, baiña dana joian berantza, filosofia bera be zalantza utsean geratu zan, K.a.'ko 270n. urtera arte bizi izan zan Pirro buru zala. Platon'en filosofiak izan ebazan jarraitzaileak K.a.'ko lenengo gizaldian Ammonio Sakkas estoazalea ta Plotino. Gerotxuago Porfirio. Filosofi-giro onek ikutu aundia izan eban Kristiñauen jokabide-arauetan.

Alexandria'ko liburutegia be sortu zan eta 500.000 liburu eukitera eldu be bai, gero itxaspean galdu zan.

Matematika-arloan Euklides'en bideak jarraitzen dabe eta Arkimedes'ek jorratu eban zientzi-arloa, gaien sendotasuna edo dentsidatea neurtuz, "Eureka" itza esan eban eta berak aurkitu eban jeometria'ko "pi" zer dan (3,1416).

Izar-izti edo astronomian Tolomeo'k ezarri ebazan luzaroko bideak, naizta gero aldatu egin bear, eguzkia ardatz ipinten ebalako.

Elertian edestia baiño geiago bizitza-iztiak idazten dira. Orretan Plutarko da nagusi eta maitemiñaren eleberrria be agertu zan. Komediak idazten dogu nagusi Menandro eta edesti-arloan, arlo onetan onentzat dagoan Polibio.

Etzegintza-arloan uriak sortu ziran eta uribarruetan Jauretxeak eta Jauregiak, jonikoak eta korintioak, etxea mailladi aundi baten gaiñean dala eta inguruan aterpeak.

Aldi onetan irudigintza oso ona da, baiña lana taidean egiten dabe eta ez da jakiten norenak diran: Benus'ak, gizon burrukalariak, Galoa iltzear.

Buztin-lana be egiten da baiña urna da, beste gai batzuk, ostera, ugari dabiltz, metala ta Ieiarra esaterako.

Olazar'tar Martin'ek.

-BERRIAGA-

Denboralditxua da, Olazar'tar Martin'ek esan custala Euskalerritik ibili zan Milian edo DONEMILIANE'ren edesti-elebarria idatziko ebala, Mungialdea'ri eta Euskal-lerria'ri ezagutzera emoteko, gure errian zelangoak ziran Euskal giza-mendarteentzat Kristautasunaren leenengoko zortzi gizaldiak.

+++

Martin, ez da txantxetan ibiltzen bere abade ta gizon eginkizunetan, beti JAINKOA'ri begira dagoelako Izadi onetan dauan beren BEREZITASUNEZKO EUSKADI dan EUSKALERRI maitegarri onetatik. Eta alango egun batean: "or daukazu" esan eustan, liburua mai gaiñean ipi-nita.

+++

Ezkerrak emonagaz batera, zelako sal-neurrian kale-ratuko eban liburua itandu neutsonen: "erriarentzat opa-ria da" esan eustan, eta liburu batzuk eskatu neutsezan Zornotzatik be zabaltzeko.

+++

Elebarri baten antzera idatzita dago, eta ikusi neban orduan Gaztelez be idatzita dagoela: "zergaitik Gaztelez idatzita?" itandu neutsonen, "jakintza danontzat dala-ko", batzuk ez dakielako Euskararik, beste batzuk ez dau-kie Euskeraz irakurteko oiturarik, baiña orrelan girora sartu eta oiturea artuko dabe, erantzun eustan

++++

Leenengoa ez da liburutxu au, eta azkena be ez daite-la izan: ERRIA'k beti bear daualako beren semeagandik jakintzaren arloan ardurak betetea: "gu eta gure eginkizu-nak zentzuan ezarri gaitez an leenen, eta lotsagizunean benetakoak garalako, merezimenduzkoak izan gaitez an bigarren", EUSKADI'ren ASKATASUNA lortu gura ba-dogu.

+++

Euskalerrriak asko zor dautse beren semeak-alabak diran: "abade, lekaide/lekaiame abertzeleai", ori baiña, beste idaz-lan baten mamia da, urrengo baten argitaratuko dodana.

+++

Egun baten eta liburua agertu orduko, Mungi'tik Bil-bora joan bear gendun Martin'ek ta ni'k, eta urten orduko: Bilbora joateko, niretzat ez ezaguna zan bide barri bat era-kutsi bear eustala esan eban. Gamiz'ko bidea artuta eta bertara eldu orduko, erdi inguruan dagoan eskubi aldetik bidea artu gendun.

+++

Bide ortan sartuaz batera, Done Milian'en bizitza azaltzen asi jatan, eta aurrez aurre begitan agertu jakun mendia aipatu eban: "a da Berriaga mendia", ez aztu!, or

bizi zalako Milian eta bertan jaso ebalako beren baseliza, gaur lur-jota dagoana.

+++

Nik, bertara joan bear gendula, ikusteko zelan eta nun dagoan kokatuta esan neutson, berak iziltasunagaz eran-tzunda.

Azilla'ren 18'an, Latiegi'tar Bizente'k argitaratuta daukazan bederatzi (amargarrena amaitzen dabil) liburuak Kristautasunaren sorkuntza'tik asita, Derio'n dagoan Labairu'ren Iraspeneko liburutegira croan bear genduzan. Bertan, Manterola'tar Ander'ekin alkartu giñan eta Iraspe-naren liburutegi ederra ikusi gendun alkarren arteko sola-sean.

+++

Ander agurtuta eta denbora naikoa euki gendulako: zer egin bear dogu ?. Martin'eri itandu neutsonen, beren erantzuna "Berriaga'ra joan " izan zan. Laukariz'ko bidea artuta eta Arrituganeko bidetik sartuta, etxe barri batzuk egiten dagozan toki batera eldu giñan, Berriaga'ra igoteko bidea bertan dagoelako.

+++

Zelako izena euki eban inguru arek galdetu neutso-nen "Bilbo'tarren landetxe batza " auzoa zala inguru gutzia esan eban.

+++

Ariñagoko egunetan euria egin ebalako, bidea neurri aundi baten lupetztuta egon zan, baiña erabagia artuta gendulako, nai-ta kaleko zapatakaz jantzita egon arren ta eguraldia aldagaia izan aurrera egin gendun, sarrera katea-tuta egon zanen albotik mendiaren bidera sartuta.

+++

Mendia igoten asi giñanean konturatu nintzan, arri batzuk gorriz eta beste batzuk urdiñez margoztuta egon zirala eta Martin'eri esan neutson: bidea, ikastetxeoak eta mendigoi-zale taldeak ezagutzen ebela, arri ganeko margo arek egoteko.

+++

Martin'ek, bide au, lau gauzarengaitik ezaguna izan ditekeena da, esan eban: mendiaren bizkarretik ikuspegi aundi eta politak dagozelako leenengo: mendi gaiñean Keltiarren kastro edo erria egon zalako, bigarren: Done Milian'ek Keltiarren erri gaiñean, beren baseliza eraiki ebalako, irugarren; eta Larrabetzun dagoan Gaztelumen-dira joateko bidea dalako. laugarren.

+++

Baiña ingurua ikusita beetik goraiño, lau izakizun orreitatik bat bera esanda be ezin leikena ganoraz bete, mendi onetan basurdeak bizi ezin leikezelako eta gutxia-

IKERTZEN

go ibili, dagon sasi, sastar, aien-bedar eta sinetsi ezin dan basalarrakin zuaitzari be gaiñezka egiten dautsienak eta ito, usteltasunera bideratuta eguzkirik ez dabelako ikusten eta gutxiago sartzen, basalarragaz mendi guztia menperatuta dagoelako. "Odoldiaren atseginezko baratza".

Ez dakit nun dagozan gure Bizkaiko baso-zain arduradunak eta gutxiago itandu gura-be ez jabeagaitik, gure Euskalerrri maite onetan, askatasunaren lege bereziko oiñarrian "ordezkaritza" erperatuta daukagulako gure arduradunetzko eginkizunetarako. Eta or! dagoelako Euskal jabetasuna, Berriaga'ko mendiak ez dabe merezi alako jabe edo arduradunik, Euskalerrriaren lotsagarria dalako.

+++

Ez bakarrik mendi polita dalako, bere mendi gaiñean, gaur Berriaga bizkargunea deitzen jakona: Keltiarren erria, gaztelu edo gudal-etzauntza egon zalako, eta baleiteke beren ondamen gaiñean Done Milian'ek beren basiliza eraiki ebala, lenago egon ziran ondamen gaiñean jaso egiten ziralako etxe-leku barriak. Eldu giñan antxiñako Kelten erria zan lekura. Dana sasiz estalduta egoan eta eta Martin'ek ara sartu nai izan eban, baiña sasi artean jeusi zan eta bere deia entzunda laguntzera joan nintzan: urrutu batzuk eta odol apur bat izan ziran ondorenak.

Azterketaren ikusketa eginda bidea aurrera joian, bear ba-da 300 metrora egoan San Bartolome (EZKURRA) Baseliza edo ermitara, baiña sasi asko egoan eta ezin joan izan giñan. Tamalgarria ain gauza zaarrak eta ikusgarriak dagozan lekua orrela eukitea.

Gure edestiaren astarnak azterketaren bidez argituta ezarri daiguzan, Europa ta Mundu guztian jakin dagien, Euskaldunak beti danik bizi garala lur onetan, askatasunaren ametsgarrian JAINKOA'ri begira.

**ATUTXA'tar PAULek
ZORNOTZAN2.002'an Abendua'ren 3'an**

**ZORIONTSUA IZATEKO BESTE
BATZUK IRAINTZEN DAUZANA,
ONEIK BE ZORIONTASUNAREN
BILLA DABELTZANEAN, ORI EZ DA
SEKULA IZANGO ZORIONEKOA.**

BUDA'K

EUSKERAZALEAK : URTEKO BATZAR NAGUSIA

Bazkide maitea:

Idazki onen bidez dei egiten dautsugu 2003"ko urtarrillaren 30'ean gure erakundearen etxean arratsaldeko 8'retan izango dan oiko batzar nagusira, urrengo egitamuz.

- 1- Leengo batzar nagusiko agiriaren irakurpen eta onespena.
- 2- Diru-egoeraren azalpena.
- 3- Urteko ekintzen azalpena.
- 4- Batzordekideen aldakuntza.
- 5- Eskaerea ta itaunak.

EUSKERAZALEAK : ASAMBLEA ANUAL

Querido asociado:

Mediante la presente te convocarnos a la próxima Asamblea General Ordinaria, que se celebrará el día 30 de enero de 2003 a las 8 de la tarde en los locales de nuestra Asociación y con el siguiente orden del día:

- 1- Lectura y aprobación, en su caso, del acta de la Asamblea anterior.
- 2- Estado de cuentas.
- 3- Memoria de actividades.
- 4- Renovación de la Junta.
- 5- Ruegos y preguntas.

TOKI BAT DAGO SALGAI / VENDEMOS UN LOCAL

NON? TOLOSA'N. GETARIA KALEA 5. ZEZEN-PLAZA'REN ONDOAN.

NEURRIA: 158 m'

JAKINGARRIAK ETA SALKETA: 943 65 13 33

EUSKALDUN BARRIENTZAT



KANPOAN DAGOEN ZATI BAT, IRUDI BARRUAN IPIÑI BEAR DOZU!

Karmele

BBK

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hileru,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²